

**2023.12.15 Bizkaiko 2024. urteko
Aurrekontu Orokorrei aurkeztutako
osotasunezko zuzenketa eskeen eztabaida
Jesús Lekerikabeaskoa Arrillaga**

**15.12.2023 Debate de las enmiendas
a la totalidad a los Presupuestos Generales
de Bizkaia para 2024
Jesús Lekerikabeaskoa Arrillaga**

Eskerrik asko mahaiburu Andrea. Ahaldun nagusi Andrea, ahaldun andra-gizonok, batzarkideok, kazetariok... Egun on danori.

Pasa dan iraileko lehen lan egunien BFAko legealdi plana azaltzeko agerraldi eskaria aurkeztu zan Bizkaiko Batzar Nagusietan (BBNN) eta, irailean bertan, Etxanobe andretik hasita, ahaldun guztiak etorri zinen legealdiko egitasmoa edo plana azaltzen. Guk hauteskondeetan kudeaketa eredu bat eskaini geuntzen bizkaitarrei eta proiektu konkretu batzuk ipini genduzen mahai gainean. Herritarren gehiengoak hori aukeratu dabe eta horregaitik guk hori beteteko ardura daukagu. Emondako berba beteteko derrigortasuna daukagu.

Legealdi honetako proiektu horren barri emon ondoren, proiektu horrek burutzeko, urtero urtero, aurrekontua aurkeztu eta onartu behar da. Aldundiak aurrekontua aurkeztu dau eta 2024en aurrera eroan ahal izateko onartu beharra dago. Zuen aurrekontua ez dala bistakoa da. Zuek herritarrei eskaintzen diozuen eta guk eskainitakoa ez dalako bardina. Zuen modelo, diskurtsoa eta eskariak, eta gurea ez diralako bardinak.

Aurrekontua onartzeko adostasuna zabaltzeko gaitasunik ez dogu izan, ez zuek ez guk; bakoitxak bere ardura eta erruaz. Baina gaurkoan aurrekontua aurrera aterako da kamara honetako 31 batzarkideren aldeko botoekin. 20 batzarkidek, ordea, kontuak aurrera ez ateratzea erabagi dozue. EH Bilduko, Partidu Popularreko eta Elkargaz Bizkaiako batzarkideek holan erabagi dozue aurkeztu dozuezan hiru osoko zuzenketekin. Baina, Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako aurrekontua ona da bizkaitarren bizitza eta bizimodua hobetzen jarraitzeko. 2023en izan doguna baino baliabide handiagoa izango dauen aurrekontua da. Hiru urte eta erdi doguz aurretik, lau aurrekontu, 120 proiektutik gora errealidade bihurtzeko, 6 helburu nagusitan oinarrituta: Bizkaia oparoa eta indartua, sozialki aurreratua dan Bizkaia bat, Bizkaia berdea, bere nortasun propioa daukan Bizkaia, lurralde oreka daukan Bizkaia eta hori Aldundi sendo, hur eta moderno baten bitartez lortuta.

Ni neu behintzat gaur honetaz ariko naz azalpenak emoten, hori dalako guk eskaintzen doguna denontzako Bizkaia hobe bat egiteko. Zuek gaur, Casanova jauna, González andrea eta De

Madariaga andrea, zer eskaintzen deutsezue Bizkaiari eta bertako herritarrei?: aurrekontuek atzera botatzie. Alkarrizketaz eta alkarlanaz posible izango zan zeozer hobetzea; hobetzea baino, hurbiltzea esatea zuzenagoa da, baina ez dago ez hobetzerik ez hurbiltzerik. Guk planteetan dogun ereduaren aurka joan gura dozue, besterik ez. Eta ekuazino horretan etorkizun hurbilean doguzan hauteskundeak kontutan izanda, zuen ezezkoa aurreikus eitekean. Sentiduten dogu: gaur aurrekontu hauen tramitazioagaz jarraituko dogu eta alderdi honek, Euzko Alderdi Jeltzaleak, bizkaitarrei emondako berba beteko dau.

El PNV va a cumplir la palabra dada a las y los bizkaitarras. Este grupo juntero afronta esta legislatura con la clara intención de cumplir con los proyectos propuestos abiertamente a la ciudadanía sin los populismos ni las falsas promesas que ofrecen quienes realmente saben que no van a gobernar, ni gestionar. Decimos lo que vamos a hacer y hacemos aquello que nos comprometemos a realizar. Son más de 120 proyectos asentados en 6 ejes para seguir mejorando Bizkaia. Porque trabajamos por una Bizkaia próspera y fortalecida, una Bizkaia socialmente avanzada, una Bizkaia verde, una Bizkaia con identidad propia, una Bizkaia cohesionada y, todo ello, de la mano de una Diputación fuerte, cercana y moderna. Con el presupuesto para el próximo año afrontamos el primer largo de esta nueva regata. Salimos con una palada firme para poder coger el ritmo que requiere el actual campo de regatas con el único objetivo seguir haciendo lo que sabemos: remar y remar por una Bizkaia mejor.

El 43% del presupuesto departamental de la Diputación Foral de Bizkaia para 2024, se destina al departamento de Acción Social; son 4 euros y medio de cada diez disponibles; más de 691 millones. Porque la prioridad de esta Diputación han sido, y son, los servicios sociales, públicos, público concertado, público comunitario... La fórmula que sea, pero huyendo de opciones populistas y demagogia. Porque en este partido no nos enclaustramos en ninguna, sólo actuamos con convencimiento y coherencia, situando siempre a la persona en el centro de nuestras políticas y garantizando la calidad del servicio. En base a eso, se destinarán casi 148M al Instituto Foral de Asistencia Social, unos 8M más que en el ejercicio 2023. 80M del presupuesto son para la plantilla de 887 personas, ampliando en 1,4M esta partida y dotando una partida de 6,6M para abordar la transición en cuidados en los centros residenciales de Elorrio y Leioa. 243M van destinados a centros de personas mayores, para unidades convivenciales, incrementando las plazas concertadas hasta 3.225 y avanzando en la red de centros EtxeTIC, con los nuevos centros de Basauri y Mungia, y numerosas reconversiones. Se superan los 100M destinados a personas con discapacidad, más de un centenar de convenios con entidades del Tercer Sector Social para la gestión de 1.330 plazas en centros de residencia y 1.512 plazas en centros de atención diurna. Más de 62M estarán destinados a infancia, 104M a prestaciones y subvenciones a la dependencia, 12M a valoración y orientación. Situamos siempre a las personas en el centro de nuestras políticas y lo demostramos con hechos.

Sozialki aurreratua dan Bizkaia bat gura dogu eta, hori lortzeko, kalidadezko zerbitzuak dira benetako helburua; beti. Baina kalidadezko zerbitzuak ez dira berez sortzen. Horretarako Bizkaia oparo eta indartsua behar dogu eta helburu horretan hainbat departamentuk jardungo dira 2024en be, euren artean Sustapen Ekonomikoko saila, aurten 78,5M bideratuko dauz helburu horretara 5 ardatz estrategiko garatuz: (1) Talentuen inguruen dagoen bakoia murrizteko lan eginez, gure enpresek behar dabelako. (2) Ekintzailtza sustauz, lurralde ekintzailea lurralde lehiakorragoa dalako (Bizkaia dorrean bigarren faseko 4.000 m2 horretara bideratute jungo dira). (3) PYMEak lehiakorragoak izateko lagunduko dogu, barrikuntza eta internazionalizazioa helburu izaten jarraituko dau, baina datorren aurrekontura begira, 2024ien azpimarra berezia jarriko dogu, digitalizazioan, deskarbonizazioan eta ekonomia zirkularrean. (4) Bizkaia edegi baten aldeko apustua egingo dogu. Balio erantsi handiko inbersinoak erakarri behar doguz eta munduan ezagutzera emon behar gara (helburu horregaz burutuko dira 2024ean emakumeen Champions Leagueren finala Bizkaian eta Inpact-Weekaren egoitza be izango gara 2024ean). (5) Sustapen Ekonomikoko departamentu honetako bostgarren ardatza lurralde oreka da, Lurralde kohesinonatu bat lortzea da Diputazio honen eta Euzko Alderdi Jeltzalearen lehentasunetako bat; lurralde osoaz pentsetan dogu gu, eskualde guztietan.

Jarduera ekonomikoa eta enplegua lantzen jarraitzeko 63Mko fondo bat kudeatuko da horretarako. Punta Zorrozan bai, Casanova jauna, lehen, orain eta gero, be bai. Baina baita Durangaldea, Busturialdea eta Lea Artibain be bai. Sustapen ekonomikoa zentzun askotan lotzen dot azpiegitura inbersinoekin, honek be hazkunde eta egonkortasunaren motorra be badiralako. 132M bideratzen dira aurrekontu honetan inbersino estrategikoetara, eta holan 1.785 lanpostu sortu edo mantenduko dira.

Azpiegitura garrantzitsu danak, zintzo egiten badogu berba, kamara honetako gehiengo zabalaren oneretxia daukaten azpiegiturak dira; epe laburrera ez bada be epe ertainera ziur nago baietz. Bizikleta eta oinezkoentzako bulebarra eta 'All Iron' zubia egiteko 28M bideratuko dira, erreka azpiko tunelari ekiteko 25M; Leioako Abanzadako estaltze lanak burutzeko 19,4M; Markina-Xemeingo saihebidia errealidade bat izan daiten, 11M, eta bizikleta mobikortasuna bultzatzeko proiektuetara 6,2M bideratuko dira. Baina azpiegituretako inbersinorik altuena, aurten be, lurralde oreka sendotzeko da. 60M aurreikusita dagoz lurralde guztian, Bermiotik-Otxandiora eta Lanestosatik-Elorriora, foru errepideen 1.300 kilometroak mantenduteko eta kontserbetako; urteko 365 egunetan, 24 ordutan. Baina, tamalez, aurten be batzarkide batzuk atzera bota gura dozuen aurrekontu bat daukagu esku artean.

Baina lurralde orekatua eta danok batzen gaituen beste gauza bat bide horren gainera edo azpitik doian garraio publikoabe bada; 200M inguru bideratzen dira zeregin horretan hobetzen jarraitzeko. Badago non hobetu, eta hobetuko dogu, publiko egin dira legealdi honetan aplikauko diran neurriak. Bonifikazioak hor dagoz eta egongo dira, baina hobekuntza

estrukturaletan jarri daigun esfortzua, zonifikazioak aldatuko dira urrun bizi garenon alde, transbordoan kostuak kenduko dira, tarifak bateratuko dira eta garraio publiko zerbitzu gitxien daukagun eskualdetan zerbitzua indartu eta hobetuko da, besteak beste.

Hori dalako bizkaitarren bizi kalidadea hobetzea Bizkaia berdeagoa lortuz. Honegaz lotuta, Aldundiak eginda dauka bere Foru Plana krisi klimatikoari aurre egiteko erronka eta helburuek lortzeko. Ez gagoz ez geldu, ez berba hutsetan. Ingurumen Naturala eta Nekazaritza departamentuak ia 100M inbertiduko dauz zeregin hauetan, Bizkaia berdea ez dalako eslogan bat.

Nekazaritza Garapenerako, abeltzaintzarako, nekazaritzarako, dirulaguntzak aurrekontu honetan dagoz. Txoke Plana be adostu zan. Sektoreko profesionalekin, alkartakaz, sindikatuekin... berba egin ondoren, dirulaguntza lerro egokiak jarri dira, aholkularitza eskainiz, alkarteei laguntzak emonez. Danak eskutik, bide horretan jarraitu behar dogu aurrerantzean be. Datorren urtera begira hor izango dogu Mendien Foru Araua be. Danok eskutik egin beharko dogun bidea izango da, sektorea kontutan hartuta beti.

Baina Foru Araue onartu bitartean bagagoz erabagiak hartzen eta aurrera pausu garrantzitsuak emoten, horren artean basoak erosi eta publiko egiteko aurrekontuan be 400.000€ aurreikusita dira eta haretxen birlandaketa proiekturako beste 800.000€. Baso bideen hobekuntza eta suen aurkako neurrietarako eta prebentzinorako, guztira 3Mtik gora be bai badagoz. Ingurumen proiektuek eta energi barriztagarrien konpromisoa be nabaria da 2024rako aurrekontuetan Bizkaia berdeagoa egiteko. Ingurumen eta naturaren alde lan egitea, gure hondartzetan emoten dan zerbitzua be bada. Kalidadezko zerbitzuek, erabiltzaileek holan eskertu eta baloretan dabe.

Gure ondare naturala, kulturala eta patrimoniala zaintzea, mantendutea eta balioan jartzea da gure helburua. Bere nortasuna daukan Bizkaia gura dogulako eta hori dalako gure beste erronka nagusi bat: gure kultura, kirola eta hizkuntza zaindu, mantendu eta balioan ipintzea. Aurrekontu honen parte garrantzitsu bat horra guztira be bideratuko da. Kulturari dagokionez, aurrekontu honek industria ondarea, museoak, liburutegiak, kultur ekipamentuak, musika, dantza, antzerkia eta ikus-entzunezkoak sustetako programa eta proiektuei bideratutako dirulaguntzak aurreikusita dagoz. Beste alde batetik, kirol guztietako federazioak kontutan hartzen dira; baina, batez be eta bereziki, bertoko kirolak (pelota, herri kirolak eta arrauna). 2024rako proiektu politak aurreikusten dira, federazioen, klubien eta taldeen eskutik. Eskola kirola sustetan da, emakumeen kirolean arreta berezia jarritz. Eta gure hizkuntza, euskara, bakotzak berea eta bat danona. Nik neuk euskarari buruz gitxiago berba egin behar dala eta euskaraz gehiago egin behar dala uste dot, eta kitto.

Eta guzti hau burutuko da Aldundi sendo, hur eta moderno baten bitartez, hori dalako legealdi honetako aitatu dodan beste helburu nagusi bat: herritarrengandik hur egotea. Horretarako, Udalak beti kontutan hartu dira eta aurrekontu honetan hori be nabarmena da, herritarrentzako arreta sendotuz, tresna eta era desbardinaren bitartez. ‘Herri txiki aukera handi’ programa, Gardentasun eta datu edegien Foru Plan barria, Herritarren eta Gizartearen Partaidetzako Plan barria raina Eta hauen gaintetik jarrerak dagoz, eta Aldundi honek hurbiltasunetik lan egiteko jarrera badauka, joango zarie ikusten.

Laburbilduta, guzti hau jasotzen da 2024ko Aurrekontuetan. Honek dira bizkaitarren bizitza hobetzeko aurkezten doguzan aurrekontuak eta EH Bilduk, Partidu Popularrak eta Elkarrekin Bizkaiak atzera bota gura dabezanak. Guk ez deutsagu uko egingo eta ez dogu herritarrei emondako berba jangohori da gure marra gorria. Baina hori holan izenda, inork ez daiala pentsau ezta esan gure jarreratik mobiduteko asmorik ez dogunik. Adostasunak zabaltzeko derrigortasun matematikorik ez dogu, baina halan da guztiz be, berba egin eta adosteko borondate zintzoa izan dogu eta daukagu. Talde guztiak zarie horren testigu, danokin egon gara azken asteotan, berba egiten eta proposamenak aztertzen. Ahaldun Nagusiak zuzenean eskua luzatu eutsuen negoziazioari heltzeko lehen batzarrean Gobernu Taldetik kanpo zagozen hiru alderdiori, borondate eta zintzotasun bardinagaz, baina ez gara adostasunera heldu. Ziur nago alkarlanagaz eta borondate zintzoagaz akordio batera irits geintezkezala, baina ez da eukerarik egon. Gauza bategaitik edo besteagaitik, ez da posible izan. Pena da.

Nolanahi be, lehen esandako esaldi bategaz amaituko dot: Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako aurrekontua ona da bizkaitarren bizitza eta bizimodua hobetzen jarraitzeko. Aurrekontu honen tramitazioak aurrera jarraituko dau eta alderdi honek, Euzko Alderdi Jeltzaleak, bizkaitarrei emondako berba betetzen jarraituko dau.